

**6/2006 INSTRUKZIOAREN HITZEZ HITZEZKO ITZULPENA****“6/2006 INSTRUKZIOA (TLB-5)****DATA: 2006ko ekainaren 23a****GAIA: Kirol proben aseguruak. Estaldurak.**

Kirol proben aseguruaren inguruan aintzat hartu beharreko irizpideak.

1. ESTALDURAK**1.1 Kirol probak****A) 7/2001 Errege Dekretuak ezarritakoa betetzen duen erantzukizun zibileko aseguruak:**

Kirol probaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibila estaltzeko aseguruak. Erantzukizun horrek barne hartzen ditu parte hartzaileei, antolatzaileei eta laguntzaileei egotz dakieken erantzukizuna, zein oro har proba antolatzetik erator daitekeena.

Kirol probetarako erantzukizun zibileko aseguruak **istripu bakoitzeko** gutxienez kopuru hauek estali beharko ditu:

- Automobilismoa, motoziklismoa, eta motor probak oro har:
 - Biktima bakoitzeko muga: 350.000 euro (58 milioi pezeta), 2.404.048 eurora arte (400 milioi pezeta).
 - Kalte materialak: 100.000 euro (16 milioi pezeta) ondasunetan eragindako kalteengatik (kaltetutako ibilgailuen edo ondasunen kopurua edozein izanda ere).
- Txirrindularitza eta Triatloia:
 - Biktima bakoitzeko muga: 350.000 euro (58 milioi pezeta), 901.518 eurora arte (150 milioi pezeta).
 - Kalte materialak: 100.000 euro (16 milioi pezeta) ondasunetan eragindako kalteengatik (kaltetutako ibilgailuen edo ondasunen kopurua edozein izanda ere).
- Atletismoa eta gainontzeko probak:
 - Biktima bakoitzeko muga: 350.000 euro (58 milioi pezeta), 601.012 eurora arte (100 milioi pezeta).



- Kalte materialak: 100.000 euro (16 milioi pezeta) ondasunetan eragindako kalteengatik (kaltetutako ibilgailuen edo ondasunen kopurua edozein izanda ere).

B) Nahitaezko kirol aseguru: 849/1993 Errege Dekretua.

OPEN probetan ziurtatu beharko da federatuta ez dauden parte hartzaileek ere istripu aseguru bat dutela. Aseguru horrek gutxienez 849/1993 Errege Dekretuak ezartzen dituen estaldurak izan beharko ditu.

1.2. Txirrindularitza martxak.

A) Erantzukizun zibileko aseguru:

- Txirrindularitza martxak:
 - Biktima bakoitzeko muga: 350.000 euro (58 milioi pezeta), 901.518 eurora arte (150 milioi pezeta).
 - Kalte materialak: 100.000 euro (16 milioi pezeta) ondasunetan eragindako kalteengatik (kaltetutako ibilgailuen edo ondasunen kopurua edozein izanda ere).

B) Nahitaezko kirol aseguru: 849/1993 Errege Dekretua.

Parte hartzaile guztiek (federatuta ez daudenak barne) istripu aseguru bat izan beharko dute. Aseguru horrek bermatu beharko ditu gutxienez 849/1993 Errege Dekretuak ezartzen dituen estaldurak.”